

Ezpalak

JON TORNER

Cristobal Molon animaziozko lanak film luze onenaren saria irabazi du Cordobako (Espainia) Animacor jaialdian. Iñigo Berasategi eta Aitor Arregiren filmak 12.000 euroko saria jaso du.

Xabier Mendiguren Elizegi

idazle beasaindarrak 1977ko errealitate soziala islatu du *Elvis hil zen urtean* (Elkar) liburuan. Edu, Rober eta Etxe dira nobelako protagonistak. Istoria herri industrializatu batean gertatzen da, eskaldunak eta erdaldunak kopuruz berdintsu diren herrian. Mendigurenek dioenez, "herri hori izan liteke Ordizia, Andoain edo Bergara", beste mordoxxa batekin batera.

Mikel Urdangarin

ek *Anek idatzi dit zutaz* diskoa kaleratu du. Rafa Rueda, Bingen Mendizabal, Nika Bitchiasvili, Saihela eta Koldo Uriarte izan ditu alboan Zornotzako musikariak. Abenduaren 7an aurkeztuko du lan berria Durangoko Plateruenan.

Xabi Otero



argazkilaririk iruindarrak *Euskal Herria Esentziak* izeneko erakusketa jarri du ikusgai Iruñeko Contraluz galerian. Bere zenbait

liburutan –*Basque; Aezkoa, el Pirineo vasco...*– bildutako argazkiak jaso ditu bertan. Azaroaren 30a arte izango da zabalik erakusketa.

400 film eskainiko dituzte Zinebi jaialdian

Azaroaren 26etik abenduaren 1era bitartean egingo da Zinebi Zinema labor eta Dokumentalen Bilboko Jaialdia. 400 film eskainiko dituzte orotara 49. edizioan. Horietatik 92 sail ofizialean lehiatuko dira. Hogei eta hemezortzi herrialdetako lanak proiektatuko dituzte; tartean, euskal zuzendarien bederatzi film: *Columba Palumbu. Uso basatia* (Koldo Almandoz), *La carta del amigo* (José Julián Bakedano), *Limoncello* (Luis A. Berdejo, Borja Cobeaga eta Jorge Dorado), *Taxi*, (Telmo Esnal), *Tex Norton* (Jon Garaño), *Decir adiós* (Víctor Iriarte), *Las horas muertas* (Haritz Zubillaga), *Footnotes to a house of love* (Laida Lertxundi) eta *Hezurbeltzak, una fosa común* (Izibene Oñederra). Bestalde, Zinebi jaialdiak Pere Portabella zinegile kataluniarra omenduko du. Ohorezko Mikeldia emateaz gain, bere filmak eskainiko dituzte sail ofizialek kanpo. Egitarau osoa www.zinebi.com web gunean kontsulta daiteke.



Ziberkultura kritikoaren inguruko jardunaldiak egingo dituzte Bilbon

BILBOKO NETLACH 2007 jardunaldiek ziberkultura kritiko izango dute ardatz. Azaroaren 22tik 24ra bitartean hainbat ekimen egingo dira Antiliburudendan, Abisal gunean, Sarea tabernan eta Badulake kafe-antzoikian: Cyberpunkari eta hacktibismoari buruzko hitzaldia, tailerrak, *Canal Accesible* proiektuaren aurkezpena, *Conectado-desconectado* performancea, Yves Robot eta Entter-en ikus-entzunezkoaren emanaldia... Ekitaldi guztiak doakoak izango dira. Helbide honetan duzue informazio gehiago: www.netlach.org.

Arantxa Urretabizkaiak *Aldaketa Hamasei* aldizkarian:

«(Literatur sarien) epaimahai ezberdinetan parte hartu dut eta inork ez nau ez presionatu eta ezta baldintzatu ere. Askatasun osoz egin dut nire lana. Eta inork ni baldintzatu nahiko banindu, altxa eta ospa egingo nuke. Horrez gain, sari hau egunen batean irabazi nahi dut. Nobel Saria, ez; baina Euskadi Saria, bai. Ez diot uko egiten».

Miren Agur Meabek *Deian*: «Euskadi Sariaren alderik ederrera da dozenaka pertsonak, lagunek eta idazle jendek eman dizkidatela zorionak. Estimazio hori igartzea, horixe da benetako saria. Epaimahaiak desberdinak izan dira kasu batean eta bestean, eta bihotzez eskertzen diet nire liburuen alde egin izana, indarra ematen didatelako».


Aritz Sound System DJak *Gaztetxulo* aldizkarian:

«Nik arazo handiak izan ditut kanpoko musika jartzeagatik. Euskal kultura defenditzeko esaten dira gauza horiek (kanpoko mehatxu dela bertakoarentzat), baina zer da euskal kultura? Nik uste dut kanpokoak aberastu egiten gaituela, beti ere kanpoko hori baldintza jakin batzuetan badator, noski. Gai polita da hori, ezin da errazkerian erori».

Ramon Lazkano musikagileak *Berrian*: «Bakartasunean lan egiten dugunontzat etxetik kanpoko oihartzuna jasotzea behar-beharrezkoa da kemena sustatzeko. Hala, zeharo poztigarria da azken urteetako nire lanak ospe honetako akademiarentzat (Frantziako Arte Ederren Akademiarentzat) aipagarriak izatea, are gehiago atzerrian».

Abarrak

JON TORNER



Emakume belaunaldi baten erretratu izugarri zintzoa

Persépolis. Marjane Satrapi.
Norma argitaletxea. 366 orrialde, zuri-beltzean.

“Badakizu zer egiten dieten atxilotzen dituzten neska gaztetxo-ei? Badakizu Niloufarri zer gertatu zitzaien? Badakizu legearen arabera ezin dela birjinik hil... Bada, iraultzaren zaindari batekin ezkontzen dute... eta exekutatu aurretik desloratu egiten dute. Badakizu horrek zer esan nahi duen?! Inork ilerik ukitzen badi-zu, akatu egingo dut!”

Marjane Satrapi irandarrari bere amak gaztetxoa zenean esan zizkion hitz horiek. Beranduago *Persépolis* komiki-liburu autobiografikoan jaso zuen amarekin izandako solasaldi hura, bere bizitzako beste hainbat pasarte hunkigarriekin batera. Jomeiniren 1979ko iraultza islamikoaz ari zitzaien ama. Marjanek bederatzi urte besterik ez zituen orduan, eta errealtateak gain hartzen zion sarri. Dena den, ez zen kikildu, eta ausardiaz egin zion aurre patuari. Komiki honetan, bere bizitza baino, bere gaztaroko Iran erretratatu nahi izan duela dio autoreak. Iraultza islamikoa du hizpide, Iran eta Irak arteko gerra, CIAren eskuhartzea nazioarteko gatazketan, erlijioa, petrolioak gerrateekin duen harremana, atxilotetak, agintarien hipokresia, torturak... eta emakume irandarraren egoera. Familia-egitura, ileko zapia, gona luzeak, sexu harremanak... gai oro jorratzen du Satrapik, ikuspegi kritiko eta sarri ironiko batetik. Baina *Persépolis* belaunaldi baten erretratu ere bada, askatasun egarriz dagoen gazteriarena. Askatasun horren ikur dira, adibidez, Satrapik oso gustuko zuen Iron Maiden musika taldea, punkiak, debekatutako idazleak eta abar.

Zuri-beltzezko irudiak ez dira bereziki dramatikoak, baina komikiak kontatzen duen istorioa batzuetan hain da gogorra, hizkiak koadro zurien gainean idatzita ere mila sentipen sortzeko gai izango lirakeela.

(Duela bizpahiru aste komikia oinarri duen *Persépolis* animaziozko filma estreinatu zen Euskal Herriko zinema aretoetan).



Euskal Museoa



Miguel de Unamuno plaza 4,
48005 BILBO, Tel.: 94 415 5423
e-posta: museoa@euskal-museoa.org
www.euskal-museoa.org